

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa Valentziako Habitat azokan

2009/09/21

Valentziako Habitat azokak hasiera arrakastatsua izan du. Azoka honen helburua diseinua sustatzea eta mundu mailako erakusleihen bihurtzea da joerak sortuz eta berrikuntza bultzatuz. Mondragon Unibertsitateko Diseinu Industrialean Berrikuntza taldeak 3. mailako ikasleen proiektuak ikusgai jarri ditu azoka honetan NUDE deritzon gunean. Gune hau diseinatzaile berriei zuzendua dago eta goi mailako 28 stand-ek osatzen du. Stand hauek diseinu estudio, freelance, galeria eta diseinu eskolen artean aukeratu dira.

Azokara 70 herrialdetatik gorako profesionalak etortzen dira.

